

Gure bezeroaren segmentua gazteak izatea erabaki dugu. Gure aburuz, gaztea izatea nortasunean eragin zuzena duen ezaugarria da. Hortaz, ez da zertan beti adin tarte baten barruan egon behar. Gazte nortasunak honako ezaugarri hauek dituela uste dugu. Alde batetik, ingurunea esploratzeko eta errealitate eta pertsona ezberdinak ezagutzeko nahia izatea. Bestetik, autonomia sustatzeko eta independenteki bizitzeko beharra izan dezakete. Horrez gain, bakoitzaren barnea ezagutzeko interesa pizten da. Azkenik, aldaketa gauzatzeko eta mapa mentala zabaltzeko prestasuna izatea. Izan ere, nagusi sentitzen garenean gure nortasuna, mapa mentala, ohiturak, joerak, etab. finkatzen dira. Hortaz, gure helburua lortzea zailtzen da. Arlo emozionalean, sozialean eta psikologikoan esku hartzeko zailtasunak agertzen baitira.

Aipatu dugun bezala, faktore asko daude nortasunean eragina dutenak. Horregatik, gazteak direla gehien bat osasun mentalean arazoak izaten ari direnak uste dugu. Hainbat artikulu ideia hau baieztatzen dute. Jarraian, aurkitutako datu batzuk azalduko ditugu.

Pandemia aldiaren ostean, psikologora joaten diren pertsonen kopurua areagotu izan dela nabarikoa izan da. Horien artean, gazteen kasuen igoera ageri izan da. [El Diario Vasco](#) egunkariak argitaratu izan duen bezala, 30 urtetik beherako 6 pertsonatik 1ek nahasmendu psikologikoren bat du bere historia medikoan. Bestalde, [Deia](#) aldizkarian, %64a psikologoarengana joan direla bizitzako unerik baten adierazten dute. %89ak merkeago izango balitz gehiago joango lirakeela baieztatzen dute.

Hortaz gain, [Osakidetza](#) zehaztu du 13.000 adingabe baino gehiago osasun mentaleko arreta espezifikoaren bat jasotzen dutela. Eta adingabe horietatik lehenengo aldiz joaten direnak kontsultara ia 3.000 gazte dira.

[Gure Geroa](#) plataformak, gazteen osasun mentalaren inguruko ikerketa sakonak burutzen ditu. Haietatik abiatu izan gara 15 eta 29 urte bitarteko gazteen errealitatea sakonago ezagutzeko. Alde batetik, 10 gaztetatik 4k arazo psikologikoren bat pairatzen dute, antsietatea hedatuen izanda.

Datu guzti hauek kontrastatu eta aztertu ondoren, gazteek Lauargik proposatzen duen ideiarekin beharra dutela baieztatu dugu. Hori guztia gutxi balitz, ukaezina da, gazteentzat espazio komunitarioaren gabezia sumatzen dela. Gazteek eta gazte sentiarazten direnek ez baitute arlo psikologikoa, soziala eta emozionala lantzeko gune finkorik. Izan ere, gizarte honetan hiru alor horiei ez zaie behar besteko garrantzia ematen. Horregatik, gizarteko hutsune honetan esku-hartzea funtsezkoa deritzogu.